Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava

www.araba.eus

# Nekazaritzako ustiategietan inbertsioak egiteko laguntzak

# Ayudas a inversiones en explotaciones agrarias

**Jasangarritasun, Nekazaritza eta Natura Ingurunearen Saila**

**Departamento de Sostenibilidad, Agricultura y Medio Natural**

## PERTSONA FISIKOA EDO TITULARTASUN PARTEKATUAREN KONPROMISOAK
## COMPROMISOS DE LA PERSONA FÍSICA O TITULARIDAD COMPARTIDA

| **Eskatzailea, izen-abizenak edo sozietatearen izena** ■ Solicitante, nombre y apellidos o razón social | **NAN-IFK** ■ DNI-NIF |
|---|---|
| | |

Nekazaritzako ustiategietan inbertsioak egiteko laguntza eskatzaile gisa **HITZEMATEN DU** honako hauek egingo dituela:

- Eman dioten diru laguntza onartu. Alde horretatik, onuradunari laguntza eman zaiola jakinarazten zaion egunetik aurrera, 15 egun balioduneko epean ez badio berariaz eta idatziz laguntzari uko egiten, onartu egin duela ulertuko da.
- Zer xede zehatzetarako eman den, hartarako erabili diru laguntza, laguntza esleitzeko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.
- Inbertsio-plana laguntza emateko ebazpenean adierazitako gehieneko epean gauzatzea, justifikatutako arrazoiengatik eman daitekeen luzapenaren kalterik gabe.
- Eraikuntza edo instalazio finkoetako inbertsioen kasuan, ustiategi onuradunaren zerbitzura 10 urtez egotea aktiboan, laguntza ematen den egunetik zenbatzen hasita, edukitza- edo jabetza-erregimen berean.
- Nekazaritzako makinetan edo eraikinak ez diren bestelako inbertsioak egiten badira, gutxienez 7 urtez aktiboan izan, jabetzan izateko eta ustiategian erabiltzeko, Nekazaritzako Makinen Erregistroan inskribatzen denetik edo, erregistroan inskribatu behar ez diren inbertsioetan, fakturaren egunetik.
- Makina berriak edo bestelakoak finantza-errentamenduaren bidez eskuratzen direnean, onuradunak erosteko eskubidea baliatzea errentamendu-aldiaren amaieran, eta gehienez ere 7 urtekoa izango da.
- Eraikitako edo berriztutako eraikinetan asegurua izatea konpromiso aldian, gutxienez suteak eragindako kalteak estali behar duena.
- Nekazaritza jarduera zuzenean egin, nagusiki nekazaria izanda (ATP) , eta NLU kopuruari eutsi, laguntza emateko oinarri izan direnak, lehenengo instalazioa egiteko prozesua hasten denetik diruz lagundutako ondasuna edukitzeko konpromiso aldia bukatu arte.
- Laguntza laborantza-azalera bati lotuta badago, konpromiso-aldian azalera horri eustea, dirulaguntza kalkulatzeko erabili zen zenbatekoan edo dirulaguntza lortzeko eskatutako gutxienekoan.
- Ureztatze-instalazioetako inbertsioen kasuan, Europako araudian ezarritakoa betetzea, bai eta Esparru Nazionalean horrelako inbertsioetarako ezarritako xedapen orokorrak ere.
- Makinak Arabako Foru Aldundiaren Nekazaritzako Makinen Erregistroan inskribatu.
- Animaliei alta eman Arabako Foru Aldundiaren abeltzaintzako ustiategien erregistro orokorrean (REGA).
- Eman, espedientea bideratzen den bitartean, laguntzaren unitate kudeatzaileari behar dituen argibide eta agiri gehigarriak, ebazpen proposamena egiteko xedearekin beharrezko diren datuak zehaztu eta egiaztatzeko.
- Lagundutako inbertsioak eta gastuak egin, laguntzaren oinarri arautzaileetan eta hura emateko ebazpenean jasotakoaren arabera.
- Laguntza ordaintzeko eskatu, jarduerak amaitu eta gero.
- Egindako gastuen justifikazioa aurkeztu, laguntzaren oinarri arautzaileetan jasotakoaren arabera.

Como solicitante de la ayuda a inversiones en explotaciones agrarias **SE COMPROMETE A**:

- Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de 15 días hábiles desde la notificación de la concesión de la ayuda la persona beneficiaria no renuncia expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.
- Utilizar la subvención para el destino concreto para el que se ha concedido y de conformidad con las condiciones establecidas en la resolución de concesión.
- Ejecutar el plan de inversiones en el periodo máximo que se les señale en la resolución de concesión de la ayuda, sin perjuicio de la prórroga que pueda concederse por causas justificadas.
- En el caso de inversiones en construcciones o instalaciones fijas, una permanencia en activo al servicio de la explotación beneficiaria de 10 años desde la fecha de concesión de la ayuda, en el mismo régimen de tenencia o en propiedad.
- En el caso de inversiones en maquinaria agrícola u otras diferentes a construcciones, una permanencia en activo, en propiedad y para el uso de la explotación, por un periodo mínimo de 7 años desde la fecha de inscripción en el ROMA o fecha de factura en inversiones exentas de registro.
- En los casos de adquisición de nueva maquinaria u otros mediante arrendamiento financiero, ejercer el derecho a compra al final del periodo de arrendamiento, que no podrá ser superior a 7 años.
- En edificaciones construidas o reformadas contar con un seguro durante los años de compromiso que cubra, como mínimo, los daños por incendio.
- Ejercer directamente la actividad agraria como persona agricultura a título principal (ATP) y a mantener el número de UTAs que sirvan de base, desde el término de su proceso de primera instalación hasta el final del periodo de compromiso de mantener el bien subvencionado.
- Si la ayuda está vinculada a una superficie de cultivo, mantener ésta durante el periodo de compromiso, en la cantidad para la que fue calculada la subvención o la mínima exigida para la obtención de la subvención.
- Cumplir, en el caso de inversiones en instalaciones de riego, con lo establecido en la normativa europea, así como las disposiciones comunes establecidas en el Marco Nacional para este tipo de inversiones.
- Inscribir la maquinaria en el ROMA de la Diputación Foral de Álava.
- Dar de alta los animales en el Registro General de Explotaciones Ganaderas (REGA) de la Diputación Foral de Álava.
- Facilitar, durante la instrucción del expediente, a la unidad gestora de la ayuda cuanta información y documentos adicionales precise para determinar y comprobar los datos necesarios con el objeto de realizar la propuesta de resolución.
- Realizar las inversiones y gastos subvencionados en los términos establecidos en las bases reguladoras de la ayuda y en la resolución de concesión de ésta.
- Tras haber realizado las actuaciones, solicitar el abono de la ayuda.
- Presentar justificación de los gastos realizados según lo establecido en las bases reguladoras de la ayuda.


**© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava**

- Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza Sailak eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Sailak, Euskal Autonomia Erkidegoko Erakunde Ordaintzaileak, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak edo beste organo eskudun batzuei jasotako laguntzari buruz eskatzen dieten informazio guztia ematea.
- Publizitatea eman, finantzaketa publikoa dela, oinarri arautzaileetan xedatutakoaren arabera.
- Administrazioan zein tokian bertan beharrezko kontrolak egitea ahalbidetu, honako hauek egiaztatzeko: laguntza behar bezala eman eta garatzen ari dela, lagundutako inbertsioak egoki gauzatzen ari direla eta ondoren konpromisoei eusten zaiela.
- Administrazioak egingo dituen ikuskatze guztiak ahalbidetu eta haietan lagundu.
- Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten dokumentuak gordetzea, dokumentu elektronikoak barne, egiaztapen- eta kontrol-jardueren xede izan daitezkeelako.
- Laguntzaren zati bat edo osorik itzuli, oinarri arautzaileetan jasotako ez betetzeen ondorioz.
- Ezbeharra izan delako inbertsioari eusten ez bazaio, organo kudeatzaileari berariaz jakinarazi hori eta dokumentu bidez egiaztatu, gertakaria izan denetik hiru hilabeteko epearen barruan.
- Ustiategia laborantza eta erabilera maila egokian mantentzea, konpromiso-aldian jarduera bertan behera utzi edo galdu izanaren zantzurik agertu gabe.
- Beteta izan diru laguntza honen oinarri arautzaileen 3.1 eta 3.2. artikuluan eskatzen diren baina eskaera egin zen unean eskatzen ez ziren betebehar guztiak, enpresa planari jarraiturik abiatutako lehenengo sarreraren prozesua bukatu baino lehen.
- Nekazaritza Sailari jakinaraztea beste diru laguntza, laguntza, diru sarrera edo errekurtsorik jasotzen badira, diruz lagundutako jarduerak finantzatzen dituztenak.
- Hartutako konpromiso guztiak, eta laguntzaren oinarri arautzaileetan eta hura emateko ebazpenean finkatutako betebeharrak bete.

- Facilitar cuanta información le sea requerida por los Departamentos de Agricultura y de Hacienda, Finanzas y Presupuestos de la Diputación Foral de Álava, el Organismo Pagador de la Comunidad Autónoma del País Vasco, al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas u otros órganos competentes respecto de la ayuda recibida.
- Dar la adecuada publicidad del carácter público de la financiación de acuerdo a lo dispuesto en las bases reguladoras.
- Someterse a los controles necesarios, tanto administrativos como in situ, para la comprobación de la correcta concesión y desarrollo de la ayuda, la correcta ejecución de las inversiones subvencionadas y del posterior mantenimiento de los compromisos.
- Someterse y colaborar en cuantas inspecciones realice la Administración.
- Conservar los documentos justificativos de la aplicación de los fondos recibidos, incluidos los documentos electrónicos, en tanto puedan ser objeto de actuaciones de comprobación y control.
- Reintegrar parcial o totalmente la ayuda como consecuencia de los incumplimientos señalados en las bases reguladoras.
- En el caso de no mantener la inversión por causas de fuerza mayor o circunstancias excepcionales, notificarlo expresamente al órgano gestor y demostrarlo mediante prueba documental, en el plazo de tres meses a partir del suceso.
- Mantener la explotación en un adecuado nivel de cultivo y manejo, sin mostrar signos de abandono o pérdida de actividad durante el periodo de compromiso.
- Cumplir con todos los requisitos de los artículos 3.1 y 3.2 de las bases reguladoras de esta ayuda no exigidos en el momento de la solicitud, antes de terminar su proceso de primera incorporación siguiendo su plan empresarial.
- Comunicar al Departamento de Agricultura la obtención de otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos que financien las actividades subvencionadas.
- Cumplir con todos los compromisos adquiridos y obligaciones establecidas en las bases reguladoras de la ayuda y en la resolución de concesión de la misma.

*(**Tokia eta data** ■ Lugar y fecha)*

…………………………………………………………………………………………………………

**Eskatzailearen/Ordezkariaren sinadura eta zigilua** ■ Firma de la persona solicitante/representante y sello

Oharra (1)
Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren apirilaren 27ko 2016/679 (EB) Erregelamenduan (DBEO) jasotakoa betetzeko xedearekin, jakinarazten dizugu zuk ematen dizkiguzun datuak Arabako Foru Aldundiaren titulartasuneko nekazaritza ustiategien titularren fitxategian sartuko direla. Datu horien tratamenduak Nekazaritza ustiategietarako laguntzak eta inbertsioak kudeatzeko egiten dira, baita nekazaritza jardueren erregistroa kudeatzeko ere.
Datu horiek isilpekoak dira eta horixe bermatzen dugu, ez baitzaizkie jakinaraziko hirugarrenei, salbu eta legez baimentzen diren kasuetan.
DBEOk onartzen dituen eskubideak, hau da, datuak eskuratu, zuzendu, ezabatu, aurka egin eta mugatzekoak, egikaritu ahalko dituzu. Horretarako, nahikoa duzu Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Bulegora (Probintzia plaza, 5. 01001, Gasteiz, Araba) joatea. Argibide gehiagorako:
https://web.araba.eus/eu/tratamenduen-lege-ohar-hedatua
Oharra (2)
Nahi baduzu administrazioak bide telematikoz bidal diezazkizun jakinarazpenak, alta eman beharko duzu Jakinarazpen Telematikoen Zerbitzuan eta, administrazioarekin harremanetan jartzeko, Helbide Elektroniko Gaitua (DEH) lortu. Ondoren, zerbitzu horrek gaituta dituen prozeduretan harpidedun egin ahal izango zara. Jakinarazpenak bide telematikoz jasotzeari utzi nahi izanez gero, nahikoa izango duzu dagokion prozeduran baja ematea.

Nota (1)
Con objeto de dar cumplimiento a lo establecido en el Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y del Consejo de 27 de abril de 2016 (RGPD), le informamos que los datos que Vd. nos facilita van a ser incluidos en el Fichero de Titulares explotaciones agrarias titularidad de Diputación Foral de Álava cuyos tratamientos se realizan para gestionar subvenciones e inversiones a explotaciones agrarias así como para la gestión del registro de actividades agrarias.
Garantizamos la confidencialidad de sus datos, no siendo comunicados a terceras personas fuera de los supuestos habilitados legalmente.
Usted podrá ejercitar sus derechos de acceso rectificación, supresión, oposición y limitación que reconoce el RGPD dirigiéndose a la Oficina de Registro de la Diputación Foral de Álava, Plaza de la Provincia, 5, CP 01001 Vitoria - Gasteiz (Álava).Para más información:
https://web.araba.eus/es/aviso-legal-ampliado
Nota (2)
Si quiere que la Administración le remita las notificaciones por vía telemática, deberá darse de alta en el Servicio de Notificaciones Telemáticas y obtener una Dirección Electrónica Habilitada (DEH) con la que comunicarse con la Administración, suscribiéndose, posteriormente, a los procedimientos que tengan habilitado este servicio, podrá dejar de recibir las notificaciones de forma telemática al dar de baja la suscripción al procedimiento correspondiente.


**© Arabako Foru Aldundia - Diputación Foral de Álava**